

BIZKAIKO ABOKATUEN ELKARGO OHORETSUAREN ESTATUTUAK

ALDATZEKO PROPOSAMENAREN JUSTIFIKAZIO-TXOSTENA

1. SARRERA

Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren Estatutuak aldatzeko arrazoiak eta helburuak labur-labur azaltzea da justifikazio-txosten honen helburua, indarrean dauden Estatutuen 81.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren indarreko estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2019ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez onartu ziren, eta Bizkaiko Abokatuen Elkargoaren funtzionamendurako lege- eta antolaketa-esparru gisa balio izan dute.

Hala ere, arau-aldaketek, COVID-19 pandemiaren ondorioei buruzko hausnarketak, premia berriek eta etorkizuneko arau-aldaketen aurreikuspenek beharrezko egiten dute estatutuak aldatzea, gure erakundearen jarduerak behar bezala garatzen direla eta indarrean dagoen araudiarekin bat datozela bermatzeko, bai Europan, bai Estatuan, bai autonomia-erkidegoan, bai eta foru-arauetan ere.

Aurreko testuetan, ez dira aipatzen Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikatzekoak diren foru-arau aplikagarriak; ez dira zerga-izaerako arauak soilik eta badira zuzenean edo zeharka garrantzia izan dezaketen beste batzuk.

2. ERREFORMAREN XEDEA

Erreformaren xedea Estatutuetao xedapenak eguneratzea da, honetarako:

- > Martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren bidez onartutako Espainiako Abokatuzaren Estatutu Orokorrera egokitzea.
- > Europan, estatuan, autonomia-erkidegoan eta foru-esparruan dauden arauetara egokitzea.
- > Gardentasun-araudiaren aplikazioan aurrera egitea, araudi hori erabat aplikatzekoa izan gabe.
- > Hizkera inklusiboan aurrera egitea, eta akatsak zuzentzea.
- > Ohiko edo ezohiko batzar nagusietara bertaratu eta botoa emateko sistema telematikoak sartzeko, elkargokide guztientzako segurtasun-bermeekin.

3. ARAU TESTUINGURUA

Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorra onartu zuen martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren arabera, beharrezkoa da Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren estatutuak aldatzea (2019ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez onartu ziren), testu horretara egokitzeko.

Proposatutako aldaketak bat datoz Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrarekin eta araudia eguneratzearekin.

4. ERREFORMAREN EDUKIA

Aldaketa garrantzitsuenek honako artikulua hauei eragiten diete nagusiki:

- 2., 3., 9., 32., 38., 39., 41., 42., 44. eta 61. artikulua, besteak beste, Espainiako Abokatutzaren Estatutu Orokorrera egokitzeko.

Batzarrak telematikoki egin daitezke, baina segurtasunez, eta komenigarria da barne-araudi bat onartzea.

Gainera, kontabilitate-, kudeaketa- eta kontabilitate-kontrolako tresnak txertatu behar dira.

5. ONDORIOAK

Estatutuen erreforma beharrezko neurri gisa planteatzen da dagoen estatutu-araudia beharrezko berrietara egokitzeko eta indarrean dagoen araudia betetzeko; horrela, erreforma honen bidez, araudi aplikagarria betetzen dela ziurtatzea espero da.

Kontua ez da soilik sistema telematikoa bat ezartzea batzarretara joateko eta botoa emateko, baizik eta trazabilitatea segurua izatea elkargokide guztientzat.

Era berean, kontabilitate-kudeaketako eta -kontrolako sistemak eguneratu behar dira, kontabilitate-irizpideetara egokituta, gardentasunez eta argitasunez.

Higiezinaren arlokoak ez diren aktiboen gainean muga batzuk ezartzea kontuan hartu behar da, ez baitakigu egungo zuhurtzia-irizpideak etorkizunean aldatuko direnik, Gobernu Batzordeko beste buruzagi batzuk arrisku handiko eragiketen lagunak izateagatik, edo interes partikularren eraginagatik.

Era berean, doako laguntza-txandari dagokionez, garai berrietara egokitu behar da, behar den prestakuntzarekin, baina ordainsariak eguneratzeko sustapenarekin. Laguntza egokia eskatzen den bezala, ordainsariak eguneratzea sustatu eta exijitu behar da, Europako esparruan dagoen bezala.

Santiago García Ordóñez